

Etxeratek  
euskal  
preso  
politikoen  
egoera  
salatu du  
Bruselan /4-5



## San Pedro jaien egitaraua aurkeztu zuten atzo

Aurtengo jaietarako 136.000 euro bideratu dituzte, iaz baino %15 gehiago

Jesus Maria Zaballos Gazteria eta Festetako batzorde buruak, Iñaki Mugika alkate ordeak, Rosa Illarramendi eta Xabier Goitia teknikariek San Pedro Jaiak 2008ko egitaraua aurkeztu zuten, atzo.

Aurtengo aurrekontua 136.000 eurokoa da. "Urte-tik urtera aurrekontua handiagoa da. Honek gauza gehiago eta kalitatezko ekitaldiak antolatzeko aukera ematen digu", azaldu zuen alkate ordeak.

Era berean, festa partehartzaileak egiten saiatu direla azpimarratu zuen Zaballosek: "elkarrekin eta herriarrek egin dituzten proposamen guztiak kontutan hartu eta ideia gehienak egitarauan sartu ditugu: betera-

noen danborradan eta herri kirolan emakumeek parte hartuko dute, haurrentzako herri kirolak, jaiak larunbatean hasten diren arren, ostiralean txozna irekita egongo da, gaueko 2:00ak arte, Ken zazpi eta diskofesta Oken-don, bigantxak goizeko 7:00etan... Berrikuntzak sartzen saiatzen gara, baina tradizioa mantenduz".

Lasarteoriatarrek txupinazora festetako blusa jantzita agertzeko deia luzatu dute Udaleko ordezkariak.

Jada San Pedro jaietako egitaraua etxean izango duzue. Baina, hurrengo aste-ko Txintxarri berezian Sorgin Jaietako egitaraua eta Ttaku-nek antolatu dituen ekitaldi-  
dien berri emango dizuegu. •



Eszerretik hasita, Jesus Maria Zaballos, Iñaki Mugika eta Xabier Goitia.

## Musika eskolaren ikasturte amaiera kontzertu bikaina

Udal Musika Eskolak bi kontzertuekin eman dio amaiera ikasturteari. Astearte eta ostegunean, kultur etxeko auditorioan arratsaldeko 7:00etan hasita musika ikasleek estilo ezberdinetako hainbat pieza eskaini zituzten bildutako ikusleen aurrean. Besteak beste, piano, tronpetak, txistu, gitarra, flauta, abesbatza, bibolin, trikitixa eta panderoa denetariko musika tresnak erabili zituzten. Batzuetan dantzarekin batera emanaldi bikaina osatu zuten aurtengo ikasturte amaiera egunean. Atzo kontzertua hasi aurretik ikasturte honetako diplomak ere banatu ziren. •



### GIZARTEA ■ 3

Udalak eta Gurutze Gorriak lankidetzan hitzarmena sinatu dute

### GIZARTEA ■ 3

07-08 ikasturtean euskara ikasten aritu direnek beka jasotzeko aukera dute

### KIROLA ■ 6

Emaitza bikainak herriko judoek

BELARTZA  
JATETXEA  
TABERNA

Asteburuko menua 11€

Eguneko menua  
Ogitaratekoak  
Plater konbinatuak

Larunbata gaua  
eta  
igandea itxita!

Belartza poligonoa  
Gurutzezi kalea 15, 4A Pabilioia  
20018 Donostia  
Tel.: 943 376082  
www.webpractica.com

Auzo Lagun



ERKOP

ESKOLA ETA IKASTOLA  
EZBERDINETARAKO  
BEGIRALEAK BEHAR  
DIRA

- Euskara beharrezkoa da.
- Orduetgia: eguerdian
- Kontratua: kurtsu eskolarra edo ordezkaketak
- Kurrikuluma:

rrhh.urc@auzolagun.com

www.barandiaranlizeoa.com  
barandi02@ikastola.net 943213355

HEZIKETA ZIKLOAK  
Diseinu Grafikoa  
Kirol Ekintzak





# Udalak eta Gurutze Gorriak lankidetzara hitzarmena sinatu dute

■ Lau urteko iraupena duen hitzarmenak 21.670 euro jasotzen ditu eta horietatik 15.600 euro anbulantzia berria erosteko izango dira

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Udalak eta Gurutze Gorriak aste honetan, asteartean, lankidetzara hitzarmena berri sinatu dute beste lau urtetarako. Udaletxean sinatu duten hitzarmen honek 2011. urteko abendura arte iraungo du.

Lasarte-Oriako Gurutze Gorriko lehendakaria, David Muñoz, lehendakari ordea, Javier Rico eta Udaleko alkate ordea, Iñaki Mugika eta Kontsumo, Osasuna, Merkataritza eta Ingurugiro Saileko lehendakaria, Ricardo Ortega asteartean udaletxean bildu ziren hurrengo lau urtetarako lankidetzara hitzarmena sinatzeko.

Hitzarmenaren bidez, Lasarte-Oriako Gurutze Gorriak 21.671 eurotako diru laguntza jasoko du Udalaren eskutik eta Gurutze Gorriak, berriz, udalerriko bizilagunei zenbait zerbitzu eskaintzera konprometitzen da.

## Entitatearen zerbitzuak

Entitateko lehendakariak azaldu duenez, Gurutze Gorriak larrialditako zerbitzuak eskaintzeko eskuduntzarik ez duela eta egun zerbitzu sozialak eskaintzen dituela soilik, besteak beste: hezkuntza eta borondatezko lana, eguneko



Ricardo Ortega, Iñaki Mugika, David Muñoz eta Javier Rico lankidetzara hitzarmena sinatzen.

zentzora joan behar dutenak bertara eraman, jostailuen kanpaina, egokitutako garraioa, etxeko zerbitzuak, Europar Batasuneko planaren janarien banaketa, hipodromoko zaldi karreretan eta Zubietan dauden partidu guztietan asistentzia eskaintzen dute, osasun babesa adinekoren omenezko egunean eta tentsioa neurketak ererituen elkarteak.

"Lur orotako ibilgailu bat dugu", dio David Muñozek, "honekin ibaien igoerak kon-

trolatzen ditugu eta mendiko talde berezia sortuko dugu laister".

## Anbulantzia berria

Gurutze Gorriak aurreko hitzarmenaren baino diru gehiago jasoko du, izan ere, aurten anbulantzia berria erosi behar dute eta: "anbulantziak zortzi urtetarako bizi iraupena izaten dute eta aurten berria erosi behar dugu. 60.000 euro inguru balio du berriak".

Udalaren aldetik jasoko duten dirulaguntzatik 15.600

euro anbulantzia berria erosteko erabiliko dute, Gurutze Gorriak eta Ana Urchuegia alkateak adostutako akordioaren ondorioz. Ibilgailuarentzako diru laguntza Ricardo Ortega zuzentzen duen sailetik bideratuko da. Aldi berean, Osasun sailak 2.730 eurotako beste laguntza bat emango dio Gurutze Gorriari Lasarte-Oriango gutxietsitako kolektiboekin egiten duen lanarengatik. Lourdes Acevedok zuzentzen duen Gizarte Zerbitzuetako sailetik berriz, 3.000 euro jasoko ditu. •

## 2007-2008 ikasturtean euskara ikasten aritu direnek beka jasotzeko aukera dute

Udaleko euskarako zerbitzuak jakinarazi du 2007-2008 ikasturtean euskara ikasten aritu diren lasarte-riatarrek beka jasotzeko aukera dutela. Horretarako, interesatuek subentzieskaerak Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dituzte, bulego-orduen barruan eta ondoko jarraibideen arabera.

Batetik, subentzieskaera dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak. Eskaerak betiere agiri guztiekin aurkeztu beharko dira.

Bestetik, Udalak eskura jarriko dizkion eskaerarako eta zinpeko deklaraziorako ereduak behar bezala beteta aurkeztuko ditu, eta eskaerari erantsiko dizkio subentzieskaerak jasotzeko baldintzak akreditatzeko eskatutako agiriak.

Argibide gehiago nahi izanez gero, euskarako zerbitzura jo daiteke edo 943 376184 telefono zenbakira deitu dezakezue. •

## Herritarren Partehartze Karpa Goiegiko urbanizazioan egongo da bihar

Lasarte-Oriako Herritarren Plataformak kalera aterako du berriz ere, Herritarren Partehartze Karpa larunbatean. Oraingoan, Goiegiko urbanizazioan izango dira, larunbata goizean, 11:00etatik 13:00ak bitartean.

"Lasarte-Oriako biztanleok gure auzoetako arazoak ezagutzen ditugu eta kasu egin eta entzundago digun udala behar dugu. Herritarren partehartzea da bidea", diote ekimen honen antolatzaitzaileek eta zera atxikitzen dute, "helburua gure bizilagunei hurbiltzea eta entzutea da. Zuen kezka, arazo, ekimen, aholkuen berri izan nahi dugu eta guztia udalaretxera iritsi dadin".

Karpara hurbiltzeko aukerarik ez duenak Lasarte-Oriako Herritarren Plataformako kideekin 943 100 658 telefono zenbakian edo pclohp@hotmail.com helbidearen bitartez harremanetan jartzeko aukera du. •

## Froilan Elespe parkeko pinuak berriz ere zerratu dituzte



Udaletik helarazi dutenez, Froilan Elespe parke botanikoko pinazi-pinuak zerratu dituzte. Dagoeneko laugarren aldia da ezegagunen batek edo batzuek zerratzen dituztela pinu hauek.

Erredakzioan Udaletik

jaso dugun oharra, hitzez hitz, horrela dio: "azken aldia gertatu diren bandalismo ekintza hauek direla eta, udaltzaingoa gertatutakoa aztertzen ari da eta gertutik jarraitu eta behatuko du gertatzen ari dena". •



## Udako beherapenak aurreratuko dira

Udako merkealdiei dagokionean, Merkataritzarako Laguntza Teknikorako Bulegotik gogorazten digute, uztailearen 1a eta irailaren 30a bitartean egin behar direla, biak barne. Hasiera eta amaiera egunak Merkatal Lurralde Bulegoari jakinarazi beharko zaizkio eta horretarako merkealdiko salmentaren berri

eman beharko duzue, internetez [www.euskadi.net/rebajas](http://www.euskadi.net/rebajas) helbidean edo komunikazioa idatziz egiteko aukera dago ere. Horri hau Merkataritza Delegazioan edo Merkataritzako Laguntza Teknikorako Bulegoan duzue eskuragarri. Informazio gehiago beharrez gero, 943 456333 telefono zenbakira deitu dezakezue. •



**Kiroletako agenda**

**OSTADARREKO  
KIROL JAIALDIA**

MICHELINEN

**Larunbata, 21**

10:00etan, Teniseko festa.  
10:00-11:30era, Bolo eta toka tirada haur eta helduentzat.  
10:00-12:00etara, Futboleko ginkana.  
12:00etan, MOSSO MEMORIALEKO finala

Izkiña-ISU lehiok

\*eguraldi txarrarekin 18:30ean kiroldegian

14:00etan, Bazkaria.



**PALA TXAPELKETA**

**Astlehena 23**

18:30ean, Asier Goikoetxea eta Aitor Azkonobieta-Iñaki Fernandez eta Jose Angel Busto.  
19:15ean, Jose Ramon Alcibar, Benito del Arco-Roberto Felipe, Alvaro Reyes.  
20:00etan, Jon eta Mikel Begiristain-Iñaki eta Asier Iparragirre

**Asteartea 24**

18:30ean, Jose Felix Solano eta Mikel Arroyo-Javi Fraile eta Fernando Nieto  
19:15ean, Xabier Garcia, Asier Munduate-Xabi Otaegi eta losu Uzkudun.  
20:00etan, Jon eta Iñaki Lizaso-Martin Iparragirre eta Juntxo Prieto.

**Asteazkena 25**

18:30ean, Ivan Ruiz eta Shanti Lorenzo-Xabi Arteaga eta Beñat Esnaola.  
19:15ean, losu Iparragirre, Aitor Matxain-Patxi Kastro, Iñaki Kastro.  
20:00etan, Carlos Garcia, Alain Excebeste-Agustin Zubizarreta, Xabi Eugui.

**Osteguna 26**

18:30ean, Xabier eta Joseba Sarasua-Juan Luis Ilegi eta Jon P. Artetxe.  
19:15ean, Ion Pagola, Jesus Ferreira-Imanol. Muxika, Manu. Muñoz.  
20:00etan, Shanti Martin, Bernaitz Odriozola-Edu Jauregi, Fran Ariztimuno.



**XXII. Zarauzko triatloian herriko atletak lehiatu ziren**

Euskadiko txapelkunak Berasategi eta Llanos berriz ere



Endika Gartzia, Arrigorriagako distantzia luzeko XI. Duetloian Euskadiko Txapelkun ordea izan zen apirillean.

**TXINTXARRI**

Larunbatean, ekainaren 14an, Zarauzko hogeitabigarren triatloia ospatu zen distantzia olinpiko bikoitzean, 2,5km-80km-20,5km. Itteera lerroan 500 triatleta inguru bildu ziren. Zarauzko Triatloi Taldea eta ETFa izan ziren frogako antolatzaileak.

Emakumezkoen mailan irabazlea Ipar Kutxa taldeko Virginia Berasategi bilbotarra izan zen 4:29:41ko denbora-

rekin eta gizonetzkoen Zarautzen bizi den Eneko Llanos, SVC-Seguridad taldekoa. Gasteiztarra da eta 3:51:23ko denborarekin eskuratu zuen lehen postua, txapelketan garaipena lortzen duen seigarren aldia da eta errekor berria gainditu du aurten.

**Herriko atletak bertan**

Emakumezkoen mailan irabazlea Ipar Kutxa taldeko Virginia Berasategi bilbotarra izan zen 4:29:41ko denbora-

kirol taldekoak 4:09:20ko denborekin zortzigarren postua eskuratu zuen.

Emakumezkoetan bigarren postua Valle Egües Hiruki T. Taldekoa Ana Casaresek eskuratu zuen 4:40:31ko markarekin eta hirugarren Hektor Krafft-Aletiko.S.S. taldeko Amaia Ostolazak 4:57:29koarekin. Gizonezkoetan Hektor Llanos izan zen bigarrena 3:52:50eko denborarekin eta Francisco Pontano hirugarren 3:54:27koarekin. •

**Kiroletako oharrak**

**Ostadar K.F dagoeneko egoitza berrian**

Ostadar Kirol Fundazioa egoitzaz aldatu da. Aurrerantzean Geltoki 25. zenbakian izango dira, Michelingo kirol-gunetik gertu, Iparragirre zapata denda zen lekalean.




**Esporting-kompac-eko tirada**

Buruntz-Azpi elkarteak esporting-kompac-eko tirda antolatu du ekainaren 22rako, igandarako, Arkalen, goizeko 9:00etatik aurrera tirada eta hamaiketako izango da. Bertan parte hartzeko Buruntz-Azpi elkartearen eman dezakezen izena, ekainaren 21a bitartean.



**Gimnasia Ritmikoa**

Ekainaren 22 igandean goizeko 11:00etan hasita kurtsu amaierako erakusketa jaialdia egingo da. Bertan kurtsu osoan zehar parte hartu duten gimnastak izango dira.



**Primerako emaitzak judoko azken txapelketan**

Larunbatean, ekainaren 14an, judoko denboraldia ixteko txapelketa ospatu zen Iruñean. Herriko judoek parte hartu zuten bertan eta emaitzak ezin hobekak izan ziren. Infantil mailan Kiara Tobajasek lehenengo postua eskuratu zuen, hiru konbateak irabazi zituen eta izugarriko maila erakutsi zuen. Esteban Martinez ere primeran ibili zen, hiru konbateak irabazi eta lehenengo postua berak eraman zuen. Josu Olmosek finala galdu zuen baina oso ondo ibili zen aurreko konbateetan eta bigarren geratu zen, Mario Garridok ere bigarren postua lortu zuen bi konbate irabaziz eta bat galduta. Imanol Gonzalezek hirugarren postua eskuratu zuen eta Abayuba Gutierrez eta Iñigo Matxainek ez zuten dominarik eskuratu.

Kadete mailan, Amaia Curielek pisu berri batean hartu zuen parte eta lehenengo postua eskuratu zuen, oso azkarra izan zen eta hiru konbateak irabazi zituen. •



Irudian, Iruñeko txapelketan parte hartu zuten judokak.

Egunero

**Erakusketa**

JOSE MANUEL MONGE margolariaren ikasleen lanak erakusketa aretoan ikusgai asteleheneratik ostiralera. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00ak arte.

**Erakusketa**

AMARAUN JAIALDIAN, Jalgune Elkarte kideek ateratako argazkiak izango dira ikusgai. Jalgin, egun osoan.



Ostirala 20

**Berto s afaria**

GR16 TXAPELKETAKO saioa jokatuko da Xirimiri Elkarte. Lasarte-Oria eta Zarautz neur-tuko dira bertan. Txartelak salgai Jalgin.



*Albokaren kontzertua*

ALBOKA ABESBATZA ETA ALBOKA TXIKI herriko abesbatzek kontzertua eskaintzen dute urtero, San Pedro Jaiak hasi aurretik. Aurten Brijjitarren komentuan eskainiko dute.

EKAINAREN 20AN, OSTIRALA  
BRIJJITARREN KOMENTUAN 20:30EAN

Igandea, 22

**Dantzaldia**

MEZUA DANTZAN DAGO, EZAGUTZEN? emanaldi berezia Erketz euskal dantzari taldearen eskutik. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean.



Astelehena, 23

**Dantzaldia**

SAN JUAN ZORTZIKOA dantzatu-koto dute Erketz Euskal Dantzari Taldekoek. Udaletxean, 21:00etan.



Ostirala, 27

**Antzerkia**

EL ENFERMO IMAGINARIO antzez-lana Lan eta Lan Beti Lan taldearen eskutik. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean, GAZTELANIAZ.

**Kontzertua**

JAM SESIOA herriko musikariek gidatuta. Estilo asko jorratuko dira denboraldiko azken jam sesio honetan. Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean.



Astelehena, 30

**Kontzertua**

AURKA ETA BONDI 22, Lasarte-Oriako taldeen kontzertua; Punk Rock. Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean.

**Oharrak**

**Odola ateratzeak**

Herriko jaiak direla eta, odol ateratzeak hildaren 23an egingo dituzte Osasun Zentroan arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

**Glotodidaktika ikastaroa**

Euskara irakaslea izan nahi dutenezat, Antiguako AEK euskaltegian glotodidaktika ikastaroa antolatuko dute. Euskara irakasteko oinarriko prestakuntza emango da ekainaren 30etik uztailearen 24ra bitartean. Informazioa 943327172 telefonon. Ikastaroan aprobetxamendu ona izanez gero, eta homologazioarako baldintzak betez gero, AEKren lan poltsan izateko aukera izango duzu.

**Larrain dantza ikasteko saioak**

Herriko festak aitzaki, Xiberuko zenbait polka, eta Larrain dan-

tza ikasteko saioak antolatuko dira. Edonork hartu dezake parte ekimen honetan. Entsaioak Erketzen lokalean egingo dira. Ekainak 20 eta 27an. Izen emateak Ttakunen 943 371448.

**Sorgin dantzaren entseguak**

San Pedro jaietako Sorgin dantzako desfilea prestatzeko asmoz, ekaineko astearte eta ostegunero entseguak egingo dira Landaberri BHI ikastolan arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara. Komenigarria da ekitaldian parte hartu nahi duzenok entseguetara joatea. Beraz, aurreko urteetan parte hartu baduzue ere, eta Sorgin dantza ongi dantzatzen baduzue ere, antolatzaileek entseguetara joatea eskatu nahi dizute.

**Pinturako klaseak**

Datorren larunbatean ekainaren 21ean izango da pintura

eta marrazketako azken eskola.

**Parodiako aktore eta parte-hartzaileei deialdia**

Dagoeneko antolatzaileak buru-belarri dabilta Sana Anako parodiaren antolaketan eta deialdia luzatu nahi diete bertan parte hartu nahi duten herritar guztiei. Hitzordua hildaren 25ean, Gazte Bilgunean (Iñigo Loiola 6) da arratsaldeko 19:00etan.

**Udalekuen zerrendak**

Udalak 2008ko udalekuetarako behin behineko zerrenda onartu du, itxaron zerrendarekin eta onartuak izan ez diren listarekin batera. Informazioa jendaurrean egongo da ekainaren 10 eta 25 bitartean, Udaleko iragarki taulan. Epe horren barne, interesa duten guztiek beren alegazioak egin ahal izango dituzte. Alegaziorik aurkezten ez bada, zerrenda behin

betiko izatera pasako da.

**Eskerrik asko Ludoteka!**

Ludotekako antolatzaile eta begirale guztiei, mila esker. Gure seme-alabak ludotekara oso gustora joaten dira eta hori eskertzekoa da. Horregatik, esker mila!

**Zikiro afariko txartelak salgai**

San Pedro jaietan urtero Ttakun Kultur Elkarteak antolatzen duen Zikiro afarirako txartelak salgai daude. Eskuratu nahi dituenak, Jalgin eta Ttakunen bertan dituzte salgai 18 eurotan.

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858  
txintzarri@ttakun.com  
Geltoki kalea 4, behea

**Sorgin Jaien egitarauaren aurkezpena**

Aurtengo San Pedro Jaietako Sorgin Jaien guneko egitaraua aurkezteko prentsaurrekoa emango dute gaur arratsaldean 20:00etan anbulatorioaren ondoan, Sorgin Jaien gunea ipiniko den lekuan alegia.

**ORNITORRINKUS** Ekainak 21 larunbata 22.30h

Maialen Lujanbio, Judith Montero eta Xabier Erkizia

**Usurbilgo dema plazan**

\* Euria egiten badu emanaldia Udarregi ikastolan egingo da.

Antolatzailea: Noaua! Kultur Elkarteak · Laguntzailea: Usurbilgo Udala



## Antzerki asteak zenbat eta urte gehiago orduan eta arrakasta handiagoa

Kulturetxeak gainezka egin du bi aste hauetan adin guztietako publikoarekin

**Helena FERRERAS**

Larunbatean bukatu zen aurtengo antzerki astea dantza emanaldi eta batukadarekin. Lau taldek egin zuten dantza, bakoitza estilo eta gai desberdinekin, festa giroa, natura eta euskal dantzen inguruan egin zituzten lanak eta asteari bukaera emateko talde guztiak aritu ziren batukadaren erritmoarekin batera dantzan, ikusentzuleak ere animatu eta oholtza gainera igo ziren dantzatzera, bukaera ezin hobea beraz bi aste hauek

izan dutena.

Aurtengo Landaberri Antzerki Eskolako Antzerki Asteak bi aste iraun ditu, ekainaren 2an hasi eta ekainaren 14ra arte egon dira mota guztietako lanak ikusgai. Urteak pasa ahala talde gehiago sortzen dira, aurten hogeitau taldek eta batukadakoek hartu dute parte eta arrakasta handiz gainera, kulturetxeko eserlekuak beteta egon batira bi aste hauetan zehar. Taula gainean adin guztietako jendea ikusi ahal izan dugu lehen hezkuntzako lehenengo

*Batukadak eta dantza garaikideak itxi dute aurtengo antzerki astea, ikusentzuleak animatuz giro bikainarekin*

mailakoetatik hasi eta helduen taldeetara iritsi arte DBHko ikasleetatik pasata. Kalitatea handia izan da bai antzerkian eta baita dantzan ere, jendea txundituta geratzeko modukoa.

### Profesionalen moduan

Ekainaren 6an Landaberriko helduen lehenengo taldeak "Garraxi Ixiliak" lana aurkeztu zuten herrian. Andoainen egin zuten lehenengo aurkezpena eta izugarritzko arrakasta izan ondoren Lasarte-Orian ez zen gutxiagorako izan. Hel-

duen bigarren taldeak ekainaren 14an egin zuen emanaldia "Klik-On" umorezko lanarekin. Jendea algarabatean murgildu zen espero ez zituzten jakiak eskaini zizkietenean, sexuaren inguruko lan desberdina ikusi ahal izan zuten lasarteoriatarrek.

Gaztetxoek ez ziren atzean geratu eta oso lan politak aurkeztu zituzten lagun eta familiaren aurrean. Seguraski urte batzuk barru ikusiko dugu bat baino gehiago antzoki handietan lanean. •



**EUSKARAREN MARATOIA 7**

**Gozatu aurreko maratobietako argazkiekin!**

**Korritzeko modukoa!**

Lasarte-Oria 2008ko urriaren 18a eta 19a

[www.euskararenmaratoia.com](http://www.euskararenmaratoia.com)